

ZERTARAKO IKASTEN DUGU FISIKA/KIMIKA ?

- inguratzen gaituen munduaren hobe ezagutzeko (lege unibertsalak...)
- urraspide zientifikoa erabiltzen ikasteko (behatu, galderak egin, hipotesiak egin eta egiaztatu, argumentatu...)
- esperientzien egiteko (materialaren erabilpena...)

ERAKASLEAREN ESKAKIZUNAK

Materiala

- Saillkatzailean hiru artekari : **jarduerak + kurtsoa**
ariketak
ebaluaketak

- Orri sinpleak, entsegu-kaier bat.
- Idazteko usaiako materiala, erregela eta kalkulagailua.

Material guzia kurtso bakoitzean ukaitea ikaslearen betebeharreran sartzen da.

Jarduerak eta ariketak fotokopia moduan emanak izanen dira.

Ibilmoldea

- Kurtsoak esperientzietan oinarrituak dira ; esperientziak ahalen arabera egingen dira, banaka, taldeka edo bat gela osoarentzat. Esperientziak egin eta, **jarduera** fitxei erantzunen dugu, ondorioen ateratzeko. Esperientzietan segurtasun-arauak bete behar dira, gure burua, ingurumena eta materialaren zainduz.
- **Ariketak** egingen ditugu, ahalaz gelan (bakarka edo taldean), beste batzuetan etxean. Ariketak gelan lantzean entsegu-kaierean egingen ditugu. Usu ariketa horiek etxean garbira pasa beharko dira. Ariketak gelan zuzenduak izanen dira.
- Gai bati lotuak diren dokumentu idatzi, filmatu edo beste lantzen ahalko dira ere. Taldekako azalpen batzuk egiten ahalko dira.
- Programaren zati bat IALA asteetan landua izaten ahal da.
- Helburuak menperatuak direnez segurtatzeko, **ebaluaketak** egingen ditugu.

Ebaluaketa

- Gai bat landua izan ondoan, ebaluaketa bat egingen da, egun batzuk utziz prestatzeko. Batzuetan, kontrol berean bi gai ebalua daitezke. Ebaluaketetan, jada elkarrekin egindako ariketa bat izanen da beti. Gainera, aurkezpena/adierazpena 2 punturen gainean notatuko da.
- Ebaluaketa prestatzen laguntzeko, **helburu-fitxa** bat emana izanen da gai bakoitzaren bukaeran.
- Lan pertsonala ahozko galdeketen bidez edo jakitate-kontrolen bidez ebalua daiteke (hauek aitzinetik abisatuz).
- Gelako jarrera, parte-hartzea, esperientzien egiteko gaitasunak ere ebaluatuak izanen dira.

Lana

- Etxean gaiak berrikusi behar dira kurtso batetik bestera (hiztegia, definizioak, esperientziak).
- Etxerako lana emana izanen da batzuetan (jarduera-fitxak egin, ariketak, ebaluaketak prestatu...).
- Ariketak orri batean egin behar dira (ez fotokopian), sakonki (esaldi osoak egin, adierazpena eta argumentazioa zaindu).